

Euskal Herriko
Trikitixa Elkarte

L.G.: SS-418-01

www.trikitixa.eus

INPERNUKO POZA TRIKITIXAREN XV. JARDUNALDIAK

“MUSIKAREN ETA INSTRUMENTUAREN IRAKASKUNTZA”

Soinu txikiaren eta panderoaren irakaskuntza da trikitixaren jarraitasunaren giltzarria. Euskal kulturaren adierazpena den trikitixa edozein musika formatutan erabat integratua dagoen honetan, edota irakaskuntza baliabideak hainbeste aldatu diren garaietan, instrumentuaren eta musikaren transmisioa modu berdinean egokitu den edo zein norabide hartu behar duen aztertu nahi dugu.



Argazkia: EHTE

Ibilbide ezberdineko irakasleak eta musikariak gonbidatu ditugu Inpernuko Poza Trikitixaren XV. Jardunaldi hauetan. Musikaren unibertsaltasuna ahaztu gabe, trikitixaz haratagoko esperientziak alderatu eta mahai gainean jarriko ditugu.

EGUNA: Irailak 7, osteguna (19:30ean)

LEKUA: Donostiako Udal Liburutegiko Sotoan

MAHAI INGURUA: **Edurne Iturbe, Erika Lavillard-Isasi, Aritz Alustiza.** Moderatzailea: **Ander Malbadi**

TRIKITIXAREN IRAKASKUNTZA

Norbere aitona amona edo gurasoek eskolan ikasten zutena eta norberak eskolan ikasitakoa desberdina den modu berean, trikitixaren irakaskuntza ere etengabeko aldaketa batean murgilduta dago. Horrela Elgeta, Auntxa edota Sakabiren garaietan aurrez aurre ez zen metodo batekin baserri giroko soinu txikia irakastea pentsaezina bazen ere, gaur egun

metodo ezberdinen bitartez ikas daiteke. Garaiak ere aldatu dira eta horrekin batera baliabide gehiago izateaz gain (audioak, partiturak, bideoak, liburuak, etab.) soinu txikiarekin jotzen den errepertorioa ere aldatu egin da, batez ere fandango, arin-arin, rantxera eta pasodobleak jotzetik, beste instrumentuekin jotzen diren eritmoak jotzera ere iritsiz: ska, reggae, pop, rock, etab. Zer bilatzen dute ordea gaur egungo

ikasleek trikitixa ikasterakoan? Gaur egun entzuten dena ala ohituago gauzkan errepertorio klasikoa? Zer eta nola irakasten zaie? Galdera hauei erantzuna ematen saiatuko dira Edurne Iturbe, Aritz Alustiza, eta Erika Lavillard-Isasi trikitixa irakasleak.

EGUNA: Irailak 8, ostirala (19:30ean)

LEKUA: Donostiako Udal Liburutegiko Sotoan

HITZALDIA: **Maite Arroitauregi Mursego**

MUSIKAREN IRAKASKUNTZA

Musika, sortzez barruan daramagu, txikitatik eritmoa eta melodia antzemateko gai gara, hizkera baino lehen zentzu musikala garatzen dugu. Musika gozatzeko eta ikasteko, bizi egin behar da, esperimintatu, gorpuztu eta mugimendu bihurtu. Musika bereganatzeko metodologia irekia behar dugu, ikasleari egokitutakoa, bere sormena bultzatuko duena, praktikoa eta malgua.

ELKARRIZKETA: AINARA SAIZAR

Nor da Ainara Saizar?

28 urteko neska aiar bat, hiru umeren ama eta trikitixa zale amorratua.

Nolatan sartu zinen trikiti munduan?

Txikitatik gustatu izan zait, gogorazten dut, EITBko txapelketak grabatu eta ikusten nituela, panderoa hartu eta nire kasa panderoa jotzen, kantatzen... amari esaten nion, nik trikitixa ikasi nahi dut eta amak: bai 9 urterekin (ahaztuko zitzaidalakoan edo...). 9 urterekin esan nion; ama 9 urte ditut, orain trikitixa, ja, ja..., eta horrela hasi nitzen. Trikitixa banuen etxean, eta horrela hasi nintzen Azkonobietarekin.

Nahiz eta gehienetan panderoarekin ikusi, trikitixarekin ere ederki moldatzen zara. Zein instrumenturekin erosoago?

Ederki ederki..., azken aldiak ez dut batere jotzen trikitixa. Niri gehiago gustatzen zait trikitixa panderoa baino, baina panderoarekin hobeto moldatzen naizenez, erosoago sentitzen naiz.

Markinako txapelketa irabazi duzue uztailan. Zenbat urte azkeneko txapelketan parte hartu zenuenetik? Zer aldatu da azkeneko txapelketa hartatik oraingora?

2007tik esango nuke ez nuela parte hartu. Gure artean lehen ere ez zen giro txarrik baina bai konpetentzia puntu hori. Gazteak ginen eta uste dut adin kontuak ere eragina duela. Sekulako giroa izan genuen gure artean eta hori da txapelik handiena.



Txapelketa munduan erreferente zaretela esan daiteke. Zuek kantatutako bertsoak gerora hainbat txapelketetan entzun dira. Zer sentitzen da?

Niri sekulako poza! Gertatu izan zaigu, txapelketa bat ikustera joan eta gure bertsoak entzutea, urduritasun puntu hori jartzen zait..., nire buruari esanaz, jo "que guay" ja, ja.

Nola ikusten dituzu trikitixa txapelketak?

Ez dakit zer esan..., niri gustatzen zaizkit, eta nahiz eta txapelketak bakarrik ez diren, bere garrantzia ematen diet. Gusto-ra joaten naiz ikustera, baina galtzen doala iruditzen zait.

Aiako gustuko txoko bat?

Elizaren atzean dagoen bankua.

Mendia ala hondartza?

Mendia ere gustoko dut baina hondartza nahiago.

Gogoan duzun "ilunabar ilun hura"?

Ja, ja, ja..., pasa den astean Menorcan La Cova d'en Xoroi-en ikusi dudana.

Gustura entzuten duzun kantu bat?

Anje Duhalderen "Gogoaren baitan".

Amets bat?

Trikitixa munduan dudana ametsa esango dizuet..., egunen batean ni trikitixa eta nire alaba Suhar panderoarekin Aristerazuko plazan jotzea.

UDAKO TRIKITILARI GAZTEEN TXAPELKETEN EMAITZAK

Getariako XXVIII. Trikitixa txapelketa. 2017-05-27

1. Eider Tolosa eta Lierni Tolosa
2. Lierni Tolosa eta Elaia Diaz
3. Ekiñe Casado eta Maite Lizundia

Orioko VIII. Trikitixa txapelketa. 2017-06-29

1. Andoni Oruesagasti eta Uxue Kerejeta
2. Eider Tolosa eta Lierni Tolosa

Elorrioko IV. Trikitixa txapelketa. 2017-07-01

1. Andoni Oruesagasti eta Uxue Kerejeta
2. Eider Tolosa eta Lierni Tolosa
3. Ane Etxezarreta eta Sara Iriarte

Martindegiko XXI. Trikitixa txapelketa. 2017-07-09

1. Izaro Oleaga eta Jurgi Ituarte
2. Lierni Tolosa eta Elaia Diaz

Arroa Beheko IX. Trikitixa txapelketa. 2017-07-16

1. Eider Tolosa eta Lierni Tolosa
2. Joseba Izagirre eta Sara Iriarte

Aiako trikitixa txapelketa. 2017-08-06

1. Andoni Oruesagasti eta Uxue Kerejeta
2. Eneko Arbeo eta Mireia Ibabe

Euskal Herriko trikitilari gazteen XXXVII. Trikitixa txapelketa. 2017-08-15

1. Eneko Arbeo eta Mireia Ibabe
2. Aitor Uzkudun eta Naiara Urresti



Argazkia: IBON ERRAZU

Irailaren 6an arratsaldeko 19:30ean **Zarauzko trikitixa txapelketa** ospatuko da Lege Zaharren enparantzan (eguraldi txarra eginez gero Modelo aretoan). **Zumaiako Artadiko trikitixa txapelketa** urriaren 1ean arratsaldeko 18:00etan izango da eta urriaren 7an berriz, 11:00etan, **Okondoko I. Trikitixa Txapelketa**.

“POBREAREN PIANO” LIBURUA: Euskal Herriko Trikitixa Elkarte

Langile guztiek behar izaten dituzte erremintarik egokienak beraien lana txukun burutzeko. Trikitilariak ere, soinean eramaten dituzten lanabesak direnik eta preziatuenak izaten dira, altxor baten modura zaintzen dituzte. Hari horri tiraka, trikitixaren munduan altxor preziatuenak izan dira Marcelino Larrinagaren eta Florentino Guerriniren eskue-tatik sortutako soinuak. Liburu honetan tokia egin nahi izan dio EHTE-k etxeetan gor-deta dauden egurrezko bitxi horiei. Liburua dagoeneko salgai dago www.trikitixa.eus orriko “denda” atalean edota ohiko saltokietan.



I. MAKETA LEHIAKETA: “HAZIAK”. Euskal Herriko Trikitixa Elkarte



Beñat Zaton eta bere taldea.

Aurtengoan berrikuntza moduan Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak maketa lehiaketa antolatu du gaztetxoek sormen lanak bultzatzeko. Epaimahaiak aukeratutako 10 kantuekin diskoa grabatu dute ekai-nean eta azaro-abendurako argitaratuko da. Maketa Oh Brother estudioan grabatu da, Iñigo Egia teknikariarekin, eta Iker Goenagak produzitu du. Hauek dira diskoan agertuko diren musikari eta kantuak: Andoni Oruesagasti eta Uxue Kerejeta “NOR”, Beñat Zaton “ZAURIAK”, Egurre taldea eta lagunak “TXURI GORRI BERDEA”, Hor dun koxka “MELODIA ZAINETAN”, Idoia eta Olatz “GAUERO AMETSETAN”, Irati Gutierrez “PLAZABARRENA” eta “LAZTANEN PRESO”, Julen Alonso eta Eneritz Aulestia “BARRUAN DUGUN UMEA” eta Ttipika taldea “EZINAREN EGI-NAZ” eta “IRALTZ”

MARKINA-XEMEINGO HELDUEN I. TRIKITIXA TXAPELKETA

Uztailaren 8an, Markina-Xemeingo I. Helduen Trikitixa Txapelketa ospatu zen. Hamaika bikote aritu ziren lehian, bakoitzak hiruna pieza joz. Honela geratu zen sailkapena:

Txapeldunak Xabi Etxaniz eta Ainara Saizar, bigarren postuan Mirari Azkune eta Aintzane Agirrebeña, hirugarren Leire Zumeta eta Amaia Arza, laugarren postuan Patxi Aiorga eta Joseba Zabalo, bosgarren Jose Luis Garmendia “Laja II” eta Eugenio Gisasola “Lutxurdio”, seigarren Xabier eta Ander Malbadi anaiak, zazpigarren Jone Uria eta Julene Otegi eta zortzigarren postuan Eneko Dorronsoro eta Mikel Eseberri, Hegoi eta Ainara Petite eta Ander Blasko eta Jone Uria.

Aspaldian helduen trikitixa txapelketarik egin ez zenez, ikusmin handia eragin zuen eta giro polita sortu zen Markinako frontoian.



Argazkia: IBON ERRAZU

XABI ETXANIZ

Xabier, zortzi urte egin dituzu txapelketa batean parte hartu gabe. Zer moduzko esperientzia izan zen Markinakoa?

Esperientzia bikaina izan zen. Txapelketetan urte askoan ibili nintzen lehenago, baina beti besteen piezak jotzen nituen. Oraingoan, neuk sortutako pieza pare bat jotzea jarri nion erronka gisa neure buruari. Urteak pasatu dira, baina azken uneko tentsioa, urduritasuna eta egonezina lehen bezalakoxeak dira. Hala ere, nabaritzen da urteen esperientzia, batez ere, txapelketa aurreko prozesuan. Entseatzeko moduak aldatu egiten dira, eta nire kasuan, patxada handiagoz hartu dut txapelketa aurretik dagoen lan guztia.

Urola Kostako Hitza. 2017-07-12

MAIDER ZABALEGI

Nola gogoratzen dituzu Alaitz eta Mainerren garai haiek?

Oso-oso garai politak izan ziren. Alaitz eta biok lagun oso onak ginen, eta hala izaten jarraitzen dugu. Modu oso naturalean gertatu zen guztia. Oraindik ere gertatzen zait ikastolaren batera lanera joan eta umeak "Amets bat" edo "Txanpon baten truke" abesten entzutea, eta egundoko ilusioa egiten dit. Baina oso gazte hasi ginen, eta urte, kontzertu eta bidaia asko izan ziren. Nekatuta bukatu nuen oso. Ama ere izan nahi nuen, eta garbi nuen erritmo hartan ez nuela nahi. Orduan, ate hura itxi egin nuen, beste batzuk irekitzeko. Orain berriz ireki dut atea, baina beste patxada eta heldutasun batekin. Ezberdin, oso ezberdin.

Urola Kostako Hitza. 2017-05-04

**JOXEMARI IRIONDO ETA IÑAKI GARMENDIA
"LAJA"**

Laja, zeu hasiko bazina zure liburua idazten nondik hasiko zinateke? Aita bera soinu-jolea zenuela esatetik?

Agian bai, normala da ez? Hori da lehenengo iturria. Liburuan aita aipatzen dut, auzotik neska polit bat inguratu zuen soinua joz. Garai hartako dexente jotzen zuen gainera. Aitaren ondoren Elgeta izan nuen maixu, ona zen hura ere. Nik Sakabiri hots egiten nion soinua ikasi nahi nuela eta, baina harek denborarik ez. Haren bitartez etorri zen Elgeta niri erakustera. (...) Elgeta aurrean jarri eta ni parean, aurrez aurre jarrita, harek pusketia jotzen zuen eta nik berdina jo. Horrela zen orduko sistema eta ni horren aldekoa naiz. Paperetik irakurrita ez da grazi berdinarekin jotzen, buruan daukazunean trabarik gabe jotzen da.

Euskadi irratia. Arratsean 2017-05-02

TAJON PRIETO Y LOS KUAJALOTES

Udako kalera martxaren arira, Imanol Urbietaren "Kalera kale-
ra" kantuen bertsiorez berezi bat egin du Tajon Prieto y los Kua-
jalotes taldeak.
Sarean dago entzungai.

**GETXO FOLK, BBK 2017, 33. NAZIOARTEKO
FOLK JAIALDIA**

Irailaren 28tik urriaren 1era ospatuko da jaialdia Areetako Geltokia plazan (Metroko irteeraren ondoan). Sarrerak dagoe-
neko salgai daude Kutxabanken orotarako kutxazainetan,
www.kutxabank.es webgunean eta Algortako Kultur Etxean
94 491 40 80 (8:00-14:30). Hainbat artista handi izanen
dira oholtzan, tartean Xabi Aburrizaga trikitilaria NIAMH NÍ
CHARRA Irlandako musikariarekin irailaren 28an 20:00etan
edota Itsaso Elizagoien trikitilaria KUKAI DANTZA taldearen
"LOTUNEAK" ikuskizuneko gonbidatu, Carlos Nuñez, Maria
Berasarte eta beste hainbat musikarirekin batera, urriaren
1ean ilunabarreko 21:00etan.

OÑATIKO TRIKITI JAIALDIA

Azaroaren 4ean, arratsaldeko 17:30ean ospatuko da Oñati-
ko IX. trikiti jaialdia Santa Ana antzokian. Sarrerak 12€-tan
egongo dira salgai Oñatiko Arrano tabernan edota lizargara-
teelkatea@gmail.com helbidean iraila bukaeratik aurrera.
Parte hartzaileak besteak beste Jon Ostolaza eta Rakel
Pujana; Saioa eta Maider Altube; Aratz, Garazi, Mattin eta
Andoni; Roberto Etxebarria; Maitane Ayerza eta Aiora
Urdangarin izango dira.

AURKITU 7 EZBERDINTASUNAK!